

**EDITH STEIN (1891-1942),  
XX. MENDEKO PENTSAMENDU ETA ZORIGAIZTOAN**

Ez da hau Edith Stein-i buruz *Karmel* aldizkarian idazten den lehenengo aldia; aitzitik, hainbat lankidek eman du moja karmeldar horren berri orrialde hauetan<sup>1</sup>. Baina, osterera ere, pertsonaia berarengana itzultzeko aukera dugu, osatu berria den *Obras Completas* hau agertu den honetan<sup>2</sup>.

Dena den, ez nuke nahi hemen argitalpena huts-hutsean mugatu, zeren eta moja karmeldar honen kanonizazio-urteko *Karmel*-eko lan haietatik hona aski berritasun egon baita Edith Stein-en inguruan; batetik, eskuartean ditugun “idazlan guztiak” deritzan honek albiste-altxor baliagarria dakar, alde anitzetatik, eta bestetik, azken hamarkadan Stein-ek harrera heda-

---

<sup>1</sup> *Karmel*-en orrialdeetan Onaindia izan zen aitzindaria (1958). Kasik hogeita hamar urte ondoren, beatifikazioarekin, bi idazlan datoz (1987: Akesolo, Olea); kanonizazioa heldu zenean (1998), bi zenbakitan (223, 224) 11 idazlan agertu ziren (Arrizabalaga, Baraiazarra, González, Uribarren, Urkiza eta Villar-enak). Albiste bio-bibliografikoak ugari dira lan horietan, eta oraingo *Obras Completas*-eko hainbat lan aurreratu zuten, batez ere Urkiza-ren eskuetik; Akesolo, González, Urkiza eta Villar Stein-en bizipen filosofikoa esango genukeena arakutzen saiatu ziren, eta Baraiazarra, Urkiza eta Uribarrenek haren espiritualitatea azaldu ziguten. Ezingo da esan, beraz, euskal karmeldarrekin bere familiako hau ahaztu dutenik.

<sup>2</sup> STEIN, E. (2002-2004): *Obras completas*. Vitoria / Madrid / Burgos: Ed. El Carmen / Editorial de Espiritualidad / Ed. Monte Carmelo. (Bost liburuki).

tuagoa irabazi du Europan eta munduan; ezagunagoa eta miretsiagoa da orain.

Ondoko lerroetan Stein-en bizitza eta obra nola ageri zaizkidan azalduko dut, eta saiaturko naiz, euskal irakurlea gogoan dudala, pertsonaiak guretzat izan ditzakeen balioak azpimarratzen.

## **1. Bizitzako ibilera, hil-ondoko harrera**

Edith Stein ezaguna da, urte gutxitatik hona da batez ere ezaguna, eta arrakasta sozial eta eliztarra izan du. Irabazitako sona eta mirespena ez dira ezerezaren gain jasotakoak; aitzitik, bizirik zela egindako bideak funtsa eta oinarria eman dizkio ondoko ospari. Beraren bizitzako datu soilek ere sekulako indarra dute, XX. mendean jasandako izugarrikeriak gogoan di-tuenarentzat. Hona, bada, biografia hori laburtuta:

Judua zen Edith Stein (1891-1942), alemaniarra baina gaurko Polonian jaioa (Breslau/Wroclaw), emakume intelektuala, Filosofian doktorea (horretan, Alemaniako lehenengoetako emakumea), Husserl fenomenologoaren laguntzaile eta eskolako, zenbait urtetan ateo eta agnostikoa (1906...), katolikotasu-nera etorria (1921), moja karmeldarra (1933), nazien ihesi er-besteratua (Echt, Holanda: 1939) eta 1942ko abuztuaren 2an GESTAPOK preso hartu, eta zazpi egun geroago Auschwitz-en gas-kameran erahildakoa.

Bizi-ibilera horren gain eraiki da, apurka-apurka lehenengo, ospakizun eta titulu handien ondorioz gero, Edith Stein-en aurpegi biografiko-soziala eta eliztarra.

### *1.1. Nortasun ezagutu arrakastatsua*

Pertsonaia historikoen bizitzak, bistan da, ez dira izaten neurri bereko sona dutenak, ezta, halakorik egon denetan, gizar-teko jarduera-eremu ezberdinetan itzal bera izan dutenak ere. Edith Stein-i buruz, zera esan dezakegu: orain berrogeita hamar urte ez bezala, gaur egun emakume ezaguna dela asko-

rentzat, eta azken hamar-hamabost urteetan “ospe sozial” zabal irabazi duela.

Familia judu handi batean jaio zen Edith<sup>3</sup>, orduan Alemaniako zen Breslau hirian (1891): bizirik beste sei senide izan zituen Edith-ek. Haurrik txikiena zen bera. Bi urte zituela, aita hil zitzaion, eta amak atera behar izan zuen aurrera sendia, familiako negozio koskorraz arduratuz. Nerabezaro zail baten ondoren, batxilergoari heldu zion, eta 1911n Unibertsitatera pasatu zen, germanistika, historia, propedeutika filosofikoa eta psikologia ikastera.

1913an Göttingen-eko Unibertsitatera doa; hemen Edmund Husserl, Max Scheler eta Adolf Reinach izan ziren Edith-engan eraginik handiena izandako Irakasleak; batez ere, lehenengoaren fenomenologian aurkitu zuen Edith-ek bere gogoeta filosofikorako jardunbide metodologikoa. Urtetarako herentzia izan zuen hori, eta kaleratu den idazlan guztien argitaraldi honetan, fenomenologi garai horretako idazlanek liburuki osoa betetzen dute orain (*Escritos filosóficos: etapa fenomenológica*).

1914ko Gerra lehertzean, erizain bezala lan egin zuen, baina ikasketak erabat baztertu gabe. 1916an aurkeztuko du bere Doktoretza-tesia Freiburg-eko Unibertsitatean: *Zum Problem der Einföhlung* (‘Enpatiaren arazoaz’), eta bertan geratu ahal izan zen Husserl-en laguntzaile bezala, ikasle gazteei fenomenologiarako sarrera emanez, Maisuaren paperak txukundu eta idazkari-lana eginez.

---

<sup>3</sup> Stein-Courant sendiak hamaika seme-alaba izan zituen, horietako lau ume-umetan hildakoak eta Edith-ek ezagutu ez zituenak (Selma, Hedwig, Ernst, Richard); gurasoekin, gainerako zazpiek osatu zuten, beraz, familia osoa: hauetako lau kontzentrazio-esparruetan hil ziren, bi dirudienez Theresienstadt-en, segur aski 1942an tifusarekin (Paul, 1872-1942; Frieda, 1881-1942) eta beste biak Auschwitz-Birkenau-en, egun berean (Rosa, 1883-1942; Edith, 1891-1942), gas-kameran. Garaiz emigratutako hirurak Ameriketara hil ziren: Arno (1879-1948, USA), Else (1876-1954, Kolonbia) eta Erna (1890-1978, USA).

# KARMEL

## EDITH STEIN:

**Kronologia**, J.U. - P.U. - J.M<sup>o</sup>.A.

**Zientzi bidetik egiaren maitasunera. Bere bizitza**,  
*L. Baraiazarra*

**Edith Stein XX. mendeko filosofian**,  
*Lurdes Villar*

**Idazlanen bibliografia orokorra**,  
*J.Urkiza*

**Auschwitz eta E. Stein-en eriotza**,  
*J.M<sup>o</sup>. Arrizabalaga*

**E. Steinen testamentua**,  
*J.U. - P.U.*

**Espirituzko biziera E. Stein-en ikuspegiz**,  
*P. Uribarren*

**Txikitasunaren maitalea**:  
*B. Gandiaga, I. Sarrigartea*

**Euskal Herriko baserriak**,  
*J. M<sup>o</sup>. Arrizabalaga*

**Piarres Xarriton Derioko lkastaroak omendua**,  
*Igone Etxebarria*

**Ekidin delakoaren lehengusu eta izterlehengusuez**,  
*X. Kaltzakorta*

**Historian zehar Etxebarriko elizarekin...**,  
*A. Lobera*

**Bilboko Metroa**,  
*A. Zubikarai*

**Letra gozoak - Olerkiak**: *E. Stein*  
(*L. Baraiazarra - J. Urkiza.*),  
*Ana Urkiza*



1998-3

Uztaila-Iraila  
223. zenbakia

Berez aukera ona izan zen hura fenomenologiatik arazoak sakontzeko, eta Husserl-en zenbait idazki, Maisuarekin elkarlanean, moldiztegirako prestatzeko. Era berean, Freiburg eta Breslau artean bestelako edizio-lanetan jardun zuen (1917an frontean hildako Adolf Reinach fenomenologoaren obra argitaratzeko, adibidez), eta katedraren baterako oposaketak prestatzen (1918).

Gerra-tarte zailean (1918...), Edith-ek premiazkoa ikusi zuen politikan sartzea ere, eta *Deutsche Demokratische Partei*-en aurkitu zuen horretarako lekua (Th. Mann edo Max Weber ere egon zirenean, alegia). Aldi berean, hainbat oposaketatan parte hartu zuen, katedra baten bila, baina dirudienez garaiak ez zeuden helduta emakumeari Unibertsitatean leku egiteko, nahiz eta Husserl-ek horretarako gaitasuna ofizialki aitortu zion.

Bilaketa urduri batean bizi da Edith (1918-1921), bilaketa filosofiko eta erlijiosoan. Oso gazterik galdutako sinesmen judua urrun geratu zitzaion, eta bide berrietatik bilatu zuen gizakiaren nondik norako misteriotsua. Fenomenologiak lagundu zion batetik (1915-1920) eta filosofia kristaua etorri zen gero (1921-1933), baina batik bat Sta. Teresa Avilakoaren *Libro de la Vida* irakurtzean barrua irauli zitzaion, eta katoliko egitea erabaki zuen (1921).

1920 hamarkadan alde ezberdinetatik saiatu zen bide berria lantzen: fenomenologiako lanak argitaratu zituen, batetik, eta Eskolastikara hurbildu zen, bestetik, bi Eskola horiek bata bestearekin alderatuz. Irakaskuntzako arazoetan, emakumearen aldeko gogoetan eta kultura katolikoan bere ekarpena eskaintzen ahalegindu zen.

Naziak gora datoz, eta 1933ko apirilean kargu publikoetan jardutea debekatu zitzaion juduei. Barne-bilaketaren eta harreman pertsonalen ostean, 1921eko urratsari segida emanez, Edith Koloniako karmeldarren komentuan sartu zen moja (1933ko urrian). Horrek, ordea, ez zuen eraman bere herri-ja-

torria zapuztu edo albora uztera. Herri juduaren aurkako politika-abagune gaiztoa ikusita, juduekin judu izatea erabaki zuen. Ordukoa da giro antisemita nahasi hartan argi pixka bat emateko idatzi zuen *Autobiografia* (1935), alemaniarrei familia judu arrunt bateko historia xumea erakutsi nahi dien liburua. Alemaniako Lege berriek 1935eko irailean ukatu zizkieten juduei hiritar eskubideak. Zaila zen unea.

Komentuan moja zelarrik eta Nagusi erlijiosoen borondatez, bere lan intelektualean jarraitzeko eskatu zitzaion Edith-i. Gogoz segitu zuen lanean, burulana maite zuelako, etxe-barruan ematen zitzaion aukera horregatik eta, ingurutik ere, baliozko lana buru zezakeela adierazi ziolako garaiko hainbat filosofok (A. Koyré, M. Grabmann, J. Maritain, A. Dempf, etab.). Lan horien artean zegoen *Endliches und ewiges Sein* ('Izaki finitua eta izaki betierekoa': 1935-1937), Edith-en obra handiena, baina 1950a arte argitaratzerik egon ez zena, gerra aurreko ahalegin guztiak huts egin baitzuten, idazlea judua zelako.

1939an erbesterako bidea hartu behar izan zuen Edith-ek, Alemanian arrisku gorrian baitzegoen, eta Herbeheretako Echt herriko karmeldarrean izan zuen aterbea. Familiartekoek beste tokietara joango zaizkio Edith-i (Norvegia, Estatu Batuak, Kolonbia), eta Rosa ahizpa (1936an bataiatua) ondora etorriko zaio, Echt-era.

Herbehereak hartu eta lurraldeaz jabetu ziren alemaniarrek, 1940 maiatzaren 10ean. Bertatik pentsatu zen Echt-eko komentuan Stein ahizpak Suitzara eramatea, eta premiazko gestioak ere kasik burutu ahal izan ziren. Bien bitartean Holandako eliz Hierarkiak katolikoei nazien alderdian sartzea galarazi zien, eta 1942ko uztaillean naziek abiarazita zuten juduen pertsegizioaren aurka gutun pastoralara eman zuten Gotzainek. Agintari nazien erantzuna berehalakoa izan zen: judu katolikoak ere preso hartu eta kontzentrazio-esparruetara bidaltzea erabaki zuten.

Stein-darrak Suitzara pasatzeko puntu-puntu zirela, 1942ko abuztuaren 2an atxilotu zituzten Edith eta Rosa ahiz-

pak Echt-en. Bost egunen buruan, biak ere Auschwitz/Birkenau-en zeuden, eta handik bi egunera eraman zituzten gas-kamerara. Erdiragarria gertatzen da Edith-en azken gutunak irakurtzea, aldi berean hura salbatzeko egindako ahaleginak jakin eta azkenik guztiari naziak aurrea nola hartu zioten ikustea.

Ibilbide horretako lerro-tartean daude, agerian, Edith Stein-en balio pertsonal eta historikoa, intelektual eta erlijiosoak, gero aitorpen sozialik gabe ere ikustekoak direnak. Hala ere, aitorpen horren nondik norakoa eta indarra ez dira ahaztekoak.

### *1.2. Stein-ek izan duen barrera*

Iraganeko pertsonaien eta Santuen ezagupen eta oroitzapenek gorabehera eta joan-etorri aldartetsuak izan ohi dituzte. Ez dute izan denek molde eta indar bereko harrera, ez Elizan, ez gizartean. Herriek eta erakundeek, herritarrek edo sinestunek Santuei egin ohi dieten oroit-harrera garaian garaiko interesen araberakoa izaten da, ezberdina, batzutan egonkor-iraunkorra eta bestetan aldabera.

Edith Stein-en oroitzapenak onarpen bizkor eta azkarra izan du, European eta Elizan, eta jende askok jaso eta hartu ditu beraren oroitzapena eta mezua. Kasu honetan, arrazoi ezberdinak aipa daitezke izan duen harrera zabala ulertzeko: zalantzarik gabe, XX. mendeko tragedia handienaren lekuko guztiz abertitua izan da, herri txikitu bateko alaba zen, balioen ondare bizi eta gogartua utzi zigun, alemaniarrek ere behar zuten honelako judu-kristau eta judu-alemaniar onartu bat, historia-ren argigarria ere izan zitekeen Eliza katolikoko alde baten-tzat..., eta, azkenik, nazismoari aurre egindako intelektual garbi ageri zaigu Edith. Testuinguru horretan, Erakundeek gogoz begiratu dute historia pertsonal hau, Eliza katolikoak eta Karmeldarren Ordenak, esaterako.

Nola gertatu da, ordea, onarpen-harrera hori?

Edith Stein aipatzean izenetik hasi beharko genuke. Pertsona bat bera bilatzen ote dugu “Edith Stein” nahiz “Teresa Be-

dedikta Gurutzekoa” ala “Santa Teresa Bendikta” darabiltzaguenean. Egongo da, noski, dena nahi duenik, baina, edozein modutan, bata nahiz bestea hobestean ba ote dago berezikiago azpimarratu nahi dugun zerbait?

Kanonizazio-hitzaldian Joan Paulo II.ak sei aldiz aipatu zuen “Edith Stein” eta zazpitan “Teresa Benedikta Gurutzekoa”, bien artean oreka-moduren bat mantenduz. Santuen izendegian hedatuena den tradizioetik aparte dabil aukera bikoitz edo hiru-koitz hori (nork gogoratzen du “San Frantzisko” jatorriz “Giovanni Bernardone” zenik?), eta segur naiz kasu honetan ongi pentsatu eta erabakitako jokabidea izan dela. Bestalde, azalak dioenez, aurkeztera noan *Obras Completas* honetan idazlea “Edith Stein” da, nahiz eta barruan hizki apalagoz “Santa Teresa Benedicta de la Cruz (Edith Stein)” ematen zaigun.

Santutasunaren aldarrikapen ofizialak gaur egun protagonistaren nortasunean zerbait itzaltzen ote duen nago, holakoetan ofizialtasunak bestelakorik nahi badu ere; gizarte sekulartu irekian<sup>4</sup>, “santuaren bahiketa ofiziala” deserosoa balitz bezala, gaurkotasuna galduz edo datorren zerbait, alegia. Edith Steinen kasuan, izen-bitasunak ez al du arrisku hori saihestu nahi izan? Zer gertatu da Edith Stein-en harrera sozial eta eliztarrean?

---

<sup>4</sup> Gizarte *sekulartuak* erlijiotasun instituzionalaren alboratzea areagotu du, *munduaren* ibilerako autonomia ekarri du, errealitate eta balio ez-sakratuen beregaintasuna. “Santutasun ateoaz” ere hitz egin den honetan, bistan da “santutasun eliz-kanonikoa” desbalioetsia gerta daitekeela. *Sekularizazioa* une eta adiera ezberdin eta/edo osagarriak izan ditu: 1) Eliz ondasunen desjabetzeari deitu zitzaion horrela (desamortizazioa). 2) Botere politikoa Elizatik alden du eta bere gisara jarduteari ere bai (ez-konfesionaltasuna, laizitate). 3) Kultura ez-erlijiosoaren garapenari eta berorren gizarteko nagusitasunari (Ilustrazioa...). 4) Gizarte modernoko erlijio-praktikarik ezari. 5) Oro har, Elizatik at lortutako gizarte zibilaren garapen beregain ez-erlijiosoari (irakaskuntza, osasun-zerbitzuak, etab.). Sekularizazioa gurean azken hamarkadetan orokortu den arren, berorren bilakabideak erro zaharrak ditu, eta esparru ezberdinetan kronologia ezberdina. Edith Stein-en bizi-ibilera Filosofia-ren sekularitasun ateo batetik hasita egindakoa izan zen, azken buruan mistikaraino iristeko.



XII. mendean kanonizazioek bere bide ofiziala hartu zutenetik, jakitekoa da “santu kanonikoak” nola egin diren<sup>5</sup>, sasoiari sasoiko santutasun-ulerpenaren adierazlea baita kanonizazioen historia.


Pentsamendu eta sentiera sekulartuak nagusi diren garai hauetan, uste izango zenaren kontra, *santuen* eta *santutasunaren* historia modan dago Europako mundu unibertsitarioan; gaiari buruzko ikerlan ugari ageri da liburu eta aldizkari berezietan, non eta Frantzia laikoan gehienbat. Baina ez da harritzekoa interes hori, izan ere, santutasuna bere izaeran batez ere aztergai filosofiko eta teologikoa izan arren, bere presentzia sozialan bestelako alde ezberdinetatik begiratu, aztertu eta argigarria izan daitekeena baita, eta, zer esanik ez, santutasun horrek Elizaren erabakiz itxura “kanonikoa” hartzen duenean.

Historialari erdiarozaleak izan dira berezikiago gai honi arreta saiatuagoa jarri diotenak (Le Goff, Schmitt, Vauchez, etab.): santutasunak historia espiritual, teologiko, eliztar eta soziala ditu, eta neurri batean gizarte jakin bateko balio onargarrien eta amets gorenaren azalpena da.

Horregatik, aldiaren aldiko eta gizartean gizarteko santuak daude. Ez da nornahi, nonahi eta noiznahi *santu kanoniko* izaten, aldareetara jasoa izaten. Horretarako baldintza sozial eta herritar zenbait ere bete behar da. Ez da harritzekoa, hortaz, historian aldareetara presa handiagoarekin jasotako Santurik aurkitzea: argigarriak dira San Frantzisko Asiskoaren (1226/1228), Teresa Kalkutakoaren (1997/2003) edo, beste gisa batean, Jose Maria Balaguer-en (1975/2002) “abiadura handiko” aldareetaratzek. Joan Paulo II.arena ere badirudi halatsu doala.

Erdi Arotik hasita, santutasun ofizialak bere Hagiografia izan du, lehenengo hartan Santuaren bertuteak goraiatu eta

<sup>5</sup> Ik. MAYEUR, J.-M. (1993): *Histoire du Christianisme*. Paris: Desclée. V, 226-227; VAUCHEZ, A. (1988): *La sainteté en Occident aux derniers siècles du Moyen Âge d'après les procès de canonisation et les documents hagiographiques*. Erroma.



beraren erlikien sona zabaltzeko *mirarien ixtorioak* sortu ohi ziren (San Martin Tours-ekoaren kasua: †397); geroago, kanonizaziorako eta ondoko jainera hedatzeko “santuen bizitzak” eta *Legendak* idatzi ziren, maiz eliz Erakunde eta Hierarkiaren mandatuz<sup>6</sup>.

Gaur egun beste gisa batean landu behar izaten da Hagiografia, instituzionalena dela ere. Edith Stein-en *Obras Completas* honen kasua molde berriko lanen adibide bat da, batez ere bilketan egin den lan zehatzagatik; bestalde, sarreretan funtsezko lanak eskaini zaizkio Santua ez ezik intelektuala ere den honi, protagonistak berak nahi izango zuen *enpatia* ere tarteko delarik, esango nuke, baina zientziaren eta ikertzaile zintzoen arrastoan ahaleginduz

Eliza Katolikoak Edith Stein-i opa izan dion ofizialtasunak bestelako alde eta esanahia ditu, eta haren *eredugarritasuna* argitara ekartzeko ahaleginak egin ditu Elizak: Joan Paulo II.ak dohatsu izendatu zuen (Kolonía, 1987) eta urte batzuen buruan santu (Erroma, 1998). Eta berehala Europa berrirako emakumezko zaindariak bilatzean, Edith-en europartasuna eta gaurkotasuna begiratu dira.

Lehenengo, hiru gizonezko izendatu ziren Europako zaindari: Mendebaldeko gizartea eta kultura egiten lagundu zuen San Benito Nursiako (†p.547), eta Ekialde eslaviarrari kultur oinarri kristauak eman zizkioten Zirilo (†Erroma, 869) eta Metodio (†Hradish, 885)<sup>7</sup>.

<sup>6</sup> Hagiografia aipatzean historialariek azken hamarkada gutxitan horretaz eskaini diguten historia kritikoa dut buruan, Santu ez zirenak desager daitezen, eta kanonizazioen uanean uneko historikotasun-balioa erakusteko ikerlanak alegia. Ik. SCHMITT, J. C. (1979): *Le Saint lévrier. Guinefort, guérisseur d'enfants depuis le XIIIe siècle*. Paris; BOESCH GAJANO, S. (1999): “Sainteté”, in: LE GOFF, J.; SCHMITT, J. C. (1999): *Dictionnaire raisonné de l'Occident Médiéval*. Paris: Fayard. 1023-1037.

<sup>7</sup> Izendapen hauetarako Erromak gogoan izan dituen ideia eta erreferentziak ezagutzeko: Joan Paulo II.aren *Egregiae virtutis* Gutun Apostolikoa (1980ko abenduaren 31) eta *Slavorum Apostoli* Gutun-Entziklika (1985eko ekainaren

Ondoren, Europako emakume santuen protagonismo historikoa ere azpimarratzeko beste hiru aukeratu zituen Joan Paulo II.ak (1999)<sup>8</sup>: Brijida Suediako (†1374), Katalina Sienakoa (†1380), biek ere krisi garaietan santutasuna ez ezik Elizan eta gizartean eragin politikoa izan zutenak, Erromako Gotzainaren inguruko batasuna sustatuz.

Azkenik, Edith Stein da Europako emakumezko hirugarren zaindaria, Elizak beste bi horiekin batera izendatua; urtebete lehenago Joan Paulo II.ak Edith-en kanonizazio-ospakizunean emandako hitzaldian ikus daiteke Erromak Stein-en bizitzari buruz eskaini zuen irakurketa ofiziala<sup>9</sup>.

Egungo irakurlearentzat santutasun ofizial elizarrak eta horrekin batera datorren harrera gutxi-asko instituzionalak kanonizatuaren nortasun-eredua argitu baino gehiago itzali egin dezakete herritar sekular-tuen aurrean. Stein-en historia pertsonalak bestelakorik merezi du, jatortasuna, gaurkotasuna eta eredugarritasuna berarengandikoak baititu, tituluen estalki edo apaingarririk gabe ere.

Bizialdi osoa bizi-gogoeta, filosofia eta mistikari eman zien emakume honek, eta, bizitzan halako logikaz aurrera egin eta historiak ezagutu dituen sarraski itzel handienetako batean erori zenak balio digu orain –santu ofizial izan ala ez– gertutik so egin eta kulturaren ahaleginak eta bilaketa erlijiosoak elkarrekin nola lotu zituen ikusteko, nahiz eta uste dudan tranzendentziaren bilaketa horiek errepika ezinak direla beren osoan, eta

---

2a); ikus AAS buletin ofizialean (edo Internet-en: [Vatican.va/holy\\_father](http://www.vatican.va/holy_father)). Argigarria da Mendebalde/Ekialdeen (Erroma/Bizantzio) arteko garaiko gatazka kultural-politiko-erlijiosoa ezagutzeko: VODOPIVEC, J. (1986): *Saints Cyrille et Méthode, patrons de l'Europe*. Paris / Fribourg: Éd. Saint-Paul. Era berean, Eliza eta mundu eslaviarraren arteko testuinguru historiko zabala, gaurko historiografiatik begiratzeko: HAMANT, Y. (1989): *988-1988: un Millénaire. La christianisation de la Russie ancienne*. Paris: UNESCO.

<sup>8</sup> JOAN PAULO II.A: *Spes Aedificandi*, 1999ko urriaren 1a.

<sup>9</sup> Internet-en: [http://www.vatican.va/holy\\_father/john\\_paul\\_ii/homilies/1998](http://www.vatican.va/holy_father/john_paul_ii/homilies/1998).

betiere berariazko norberatasunean garatzekoak; barne-garapen horiek ez dutela izaten kopia huts jatorrik, esan nahi dut.

Edozer dela ere, lezio adigarri bat dago Edith Stein-en bizitzan.

## 2. Lekukotasunaren ageriko balioak

Edith Stein-en ibilera erlijiosoak zenbait data deigarri du bere baitan; hona haren biografiako une erlijioso jakin batzuk: judu jaio (1891), sinestun judu hazi (...1906), ateo eta agnostiko jarraitu (...1916), filosofiatik sinesmenerako bidea egin (...1921), kristau katoliko bataiatu (1922), karmeldar moja sartu (1933), kristau teologia baterako aurre-baldintza filosofikoak landu (1936), mistikarako bideak urratu (1940-1941) eta heriotza ezarria bere misterioan onartu (1942). Hori izan zen bidea.

Irekitasuna ez ezik adorea eta ausardia behar izan zituen ibilera “moderno” horrek, hain zuzen Stein-en bizialdiak dakarren balioetako bat barnetik duen modernotasuna baita. Pentsamenduaren lagunarte ezagunean ibili zen, Platon eta Aristotelekin Grezian hasi, Descartes edo Kant-engandik pasaturiko berrikuntza ezagutu, Husserl-enean eskolatu, gogaketa pertsonal bortitza oneski zertu, Teresa Avila-koaren mistikaz barnea ernaldu eta Sto. Tomas-ekin berea bideberritu zuen. Pentsamendu-sorkuntza horrela lantzen zuen aldi berean, ordea, norberarekiko eta bere herriarekiko postura eta konpromiso engeaiatu pertsonala arretaz zaindu zituen.

Bizitza eta gogoeta elkarrekin oso txirikordatuta ageri dira Edith-en bizieran, eta azkeneko hogeitun urteetan (1921-1942), batak eta besteak elkarri laguntzen diote sakontasun berriak irabazten, eta, urratsez urrats barne-begiak argiagotu ahala, gainera zetorkion errealitate krudelaren aurrean argitasun jabetu batez bere burubide praktikoa erabakitzen. Bizitza eta gogoetaren elkartasun estu hau da Stein-en ekarpen espiritual bikainenetako bat, nik uste.

Santutegi katolikoan, segur aski, inork gutxi ikusirik du hain ongi kultura modernotik eta beronek izan ditzakeen zailtasunetatik hasita Jainkoaganainoko sinesmenaren bilaketa-bidea. Eta barne-esperientzia horren lekukotasuna idatzita utzi digu Edith-ek. Pertsonartekotasunaren enpatia agnostikotik ekinda, Joan Gurutzekoaren mistikarainoko gogo-bidaia da Stein-ena. Ahalegin horretan eta harreman pertsonala tarteko zela, aldi batez Edmund Husserl (1859-1938), Max Scheler (1874-1928) eta Adolf Reinach (1883-1917) filosofo fenomenologoak izan zituen bide-lagun, beroriekin batera baina libreki bere gisara ekarpen filosofiko pertsonala eskainiz: gogora doktore-tesia (*Zum Problem der Einfühlung*, 1916).

Stein-ek pertsonatasunaren filosofia bereziki berariazko esparrua duela esango nuke, eta ezagutza eta etikarako baliozko sarbidetzat daukala pertsonaren barne-esperientzia. Jardunbide epistemologiko horretatik heldu zen, mistikaren bizi-balioa azpimarratzera. XX. mendean egon da horretaz interesatutako beste filosofoirik noski (Bergson, adibidez)<sup>10</sup>, eta harritzekoa bada ere, Gerard Brenan ere aipa daiteke, II. Errepublikaren eta Gerra Zibilaren historialari kritikoa<sup>11</sup>.

Henri-Louis Bergson (1859-1941) filosofoaren kasuak une eta antz alderagarriak ditu Stein-en biografiarekin. Bata frantsesa zen, eta bestea alemaniarra; biak ziren, ordea, juduak eta filosofoak; aldi berean, biak egin zuten erlijijotasun judutik Eliza katolikorainoko bidea, baina Stein bataiatu egin zen eta Bergson ez; Bergson-ek bere jatorriko herriarekin leial izateagatik, bataioa gerorako edo utzi zuen, eta 1941ean bere etxean hil zen, artean pertsegizio gordinenak goia jo aurretik; Stein bataiatu egin zen eta nazismoak bere jazarpen-politikari ekin zio-

<sup>10</sup> Ikus: <http://www.pensament.com/bergson.htm>; OESTERREICHER, J. (2008): "Una fe enterrada en el corazón", in: <http://www.voxfidei.com/prodigos/6d01.asp>. DELATTRE: "Les dernières années de H. Bergson", in: *Rev. Philosophique*. 3-8. zenb., 136. or.

<sup>11</sup> BRENNAN, G. (2001): *San Juan de la Cruz*. Barcelona: Plaza & Janés Editores.

nean ihes egin behar izan zuen Holandara eta arrazoi kristau-ek bihotzean zituela argitu ahal izan zituen bere jatorriko herriari zor zion leialtasuna ez ezik herri horretako alaba izate-egatik ezarri zioten heriotza.

Nolabait, Bergsonenak balio digu hemen Stein-ena ere ha- renaren argitan azaltzeko. Filosofo frantsesak bere 1934ko tes- tamentuan ondoko testu hau utzi zuen, Filosofiak zein burubi- de erlijioso pertsonaletara eraman zuen aditzera emateko:

*Nire gogoetek geroz eta gehiago eraman naute katoliko- tasunerantz, berorretan ikusten baitut judutasunaren egi- karitze asebetea. Konbertitu ere egingo nintzatekeen, mun- duan laster lebertzera doan antisemitismoaren olatu izuga- rria urtetan prestatzen ikusi ez banu (zoritxarrez, parte on batez sen moralik gabeko zenbait juduren erruz ere bai). Bihar edo etzi jazarriak izango direnekin egon nahi dut. Hala ere, nire biletakoan (Pariseko artzapezpikuak bai- mentzen badu) apaiz katoliko batek errezoak egitea nahi dut. Batimen hori emango ez balitz, Errabino bati dei egin beharko litzaioke, baina katolikotasunari diodan nire bar- ne-atxikimendua ez berari eta ez inori ezkutatu gabe, eta batez ere apaiz katoliko horren otoitzak izateko gogoia du- dala azalduz.*

Gauzak nola diren, Edith Stein-entzat ez zen arrotza izan Bergson-en pentsamendua ere<sup>12</sup>; baina arazo bertsuaren aurre- an, bi filosofo ezagunek burututako bide filosofiko-erlijioso ba- naren azken erabaki kontrajarrien aurrean gaude.

<sup>12</sup> Roman Ingarden Edith-en adiskide minaren doktore-tesiko gaia izan zen Bergson-ek "Intuizioa eta adimenaz" zioena. Edith behin eta berriz interesatu zen lan horretaz, eta bergsonismoaz ere bai ("ahora leo mucho a Bergson, por ver si puedo sacar algo para mi trabajo", idatzi zuen 1918-10-03an: OC I, 650, eta gainera: 554-555, 636). *Index*-ean sartutako Spinoza, Hume, Locke eta Kant-en liburu banarekin batera, Edith-en liburutegian irakur-debeku be- ra zuten Bergson-en hiru liburu zeuden, Filosofia modernoa Erdi Arokoare- kin alderatzeko premiazoak zituelakoan; guztiak erabiltzeko baimena eska- tu zuen 1926an (O.C. I, 765-766).

Stein-en lan filosofikoa XX. mendeko lehen erdiko pentsamenduaren historian bete-betean lekuturik dago; fenomenologiatik hasita askatasun osoan eraman zuen ondoko bere bilakera. Pentsamendu hura bere iturrietan ezagutzeaz gain, harreman akademiko pertsonalen mundua aberatsa du oso, eta utzi zigun gutunerian sona handiko izenak aurki daitezke, adiskide, lankide, lagun edo maisu bezala. Stein bera ere mende horretako Filosofiaren ikertzaile eta sortzaile bezala hartu izan da<sup>13</sup>.

Harreman haien ondorioz, argitaraldi honetako idazki biografikoetan, familia eta lagunartekoen soslaien ondoan mundu akademiko zabaleko galeria aberatsa ageri zaigu, banan-banan aurkeztua, sarritan Edith-ek berak emana, eta beti argitaratzailearen oin-oharretan osatua. Bere ibileran bizi-lagun izandakoen nortasunak arretaz begiratu zituen Edith-ek, onberatasunez deskribatu, baina irizpide kritikoari uko egin gabe. Batez ere Alemaniako mundu akademikoaren ezagutzarako leiho ireki bizia dira Stein-en orrialdeok.

Gizabanakoaren psikologiaz ez ezik Estatuari buruzko filosofiaz arduraturik zegoen Edith Stein, eta kezka horren emaitza izan ziren Husserl-en *Urtekaria*-n kaleratutako lanak: horietako bat izan zen “Gizabanakoa eta Komunitatea” zeritzana (*Individuum und Gemeinschaft*, 1920-1924). Hitler aginteratu aurretik ere erne zegoen, hortaz, Estatuaren filosofia zaindu beharraz.

Hurrengo hamarkadan, Alemaniako III. Reich-aren politika zein bide makurrak hartzera zihoan garaiz ikusi eta jasan zuen Edith-ek (1933)<sup>14</sup>. Ondoren pausoz pauso agertu ziren eragozpen eta arrisku larriagoak, baita bere irakasle-lanerako ere.

<sup>13</sup> HUISMAN, D. (1984): *Dictionnaire des Philosophes*. Paris: PUF. 2436-2438. Ik. GONZALEZ, A. (1998): “Edith Steinen pentsamendu filosofikoa”, in: *Karmel*. 1998-3, 38-48.

<sup>14</sup> “Era claro para mí que era en la enseñanza donde menos se tolerarían influencias contrarias a la dirección del poder” (O. C. I, 499). Eta Münster-eko bere irakasle-lana utzi, eta Karmelera sartzea erabaki zuen orduan bertan, lehenagotik zekarren gogoari erantzunez.



Sendia judu erlijiosoa zuen Edith-ek, ama bereziki. Judutar tradiziotik zetorrena, beraz; baina katoliko egin ziren bi alaba, eta erlijiotasun bizi banak erdibitu zuen familia, ez harremanak hausteraino, baina bai beharbada, pertsegizio zitalenaren hodeipean, judu-herriarekiko leialtasun erlijiosoa familiarteko arazo gordin ere bihurtzeraino. Hunkigarria gertatzen da Karmele-rako azken agurrean amarekin bizi izandakoen kontakizuna<sup>15</sup>.

Judu gehienen alderantzizko erlijio-bidea eraman ondoren, ongi ohartuta eta sinesmen erlijioso jakin baten barruan hautatu zuen bere judu-herriaren patu gaizto bera bizitzea, *Shoa*-k irentsi zuen arte<sup>16</sup>. Honelako bizialdi batek zer erakutsirik izan dezake; zer pentsa ematen du, batez ere tartean gogoeta iraukor eta zorrotza dagoelako, eta hori dena protagonistak berak idatzita datorrelako.

*Shoa* edo *holokaustoaz* asko idatzi da, milaka liburu, noski; baina han “akabatutakoen” historia pertsonalak milioika izan ziren. Bakoitzak eraman zuen norbere baitako sekretua<sup>17</sup>. Batzuek ongi jabetu eta konturatuta, urtetan gora eta gora zetorren uholdea baitzen hondamendi hura. Guztiaren ahots leku-koak hor daude, alde zurretik beren hitza utzi zigutenak (hauetakoa da Edith)<sup>18</sup>, ekaitzaren azpitik azkenean sano baina zaurituta iraun zutenak (Primo Levi dut gogoan)<sup>19</sup>. Bien histo-

<sup>15</sup> *Obras Completas*: “Autobiografía”, I, 505-510.

<sup>16</sup> Azken egunetako kronologiarako, ik. *Karmel*. 1998-3, 12.

<sup>17</sup> Ezin dut burutik kendu galdera bat: Rosa ahizpa ere erail zuten, Edith-ekin batera, eta nola bizi izan ote zuen emakumeak heriotza hori. Rosa etxeko andre bat zen, ez zen idazlea, beharbada bera ere *santua* zen (santutasun kanonikorik aitortu ez zaiona, noski). Ez dakigu deus hari buruz, anonimoe-tako bat gertatu zen, sarraski erraldoaiaren hondoan beste milioka lagun bezala. Ez da tragedia hartako sinbolo txarra!

<sup>18</sup> Edith-en azken egunetako ezagutzeko: ARRIZABALAGA, J. M. (1998): “Edith Stein-en holokaustoa”, in: *Karmel*. 1998-3, 41-63.

<sup>19</sup> Levi-ren biografia bat: ANISSIMOV, M. (2001); *Primo Levi o la tragedia de un optimista*. Madrid. Editorial Complutense. Trilogia batean azaldu zituen Levi-k kontzentrazio-esparruetan bizi izandakoa, eta haren ondorenak: *Se questo è un uomo* (1956), *La tregua* (1963), *I sommersi e i salvati* (1986).

riak hain ezberdinak izanda ere, Edith-en *Shoa*-aitzineko aurreikuspen bera aurkitzen dugu Levi-rengan ere: “Erreparatuta nengoen gizaki bezala desegin nahi nindutela”, idatzi zuen honek.

Arrisku nabariaren aurrean, hainbatek preso hartu baino lehenago hartu zituen bere erabakiak: Stefan Zweig eta Walter Benjamin-ek bere buruaz beste egin zuten, naziak eta Vichy-ko polizia frantsesa atzetik zituztela ikustean. Gainerako idazle batzuek, gurasoak genozidioan galdu edo pertsonalki ghettoak eta *garbiketa*-esparruak ezagutu zituztenek ere bere buruaz beste egin zuten: Tadeusz Borowski, Paul Celan, Bruno Bettelheim, Piotr Rawicz, Jean Améry, Primo Levi...<sup>20</sup>

Edith-en kasua oso bestelakoa izan zen, erabaki pertsonalez joan zen bere herria zeramaten tokira, horretarako hautua egin zuen eta gainerakoa nazien eta Jainkoaren eskuetan geratu zen (hori paradoxal!), baina bere aldetik Jainkoarenean, honek eman baitzion, barrutik bizi zuen fedearen argitan, ulertezineko hondamendiari azken zentzua. Kristaua zelako ere egon zen jatorrizko bere judu-herriarekin, gerta zekizkiokeenak alde zuzenetik jakinda eta azken unean bere kristau esanahi batean onartuta.

Ez litzateke ona izango berriz ere “santu-bizitza” gutxi-asko ofizial artifizial batek Edith Stein-en ibilera lurtarra ezkutatzea, Santuak sinboloak baitira eta sinboloek errealitatea adierazten duten bezala estali ere egin baitezakete.

Atxilotuta zegoela, eta Suitzarako azken ihesbidea ukatzen zitzaizola ikusita, Westerbork-eko bil-esparruan 1942ko abuztuaren 6an edo esandakoa<sup>21</sup> gogorarazi izan da<sup>22</sup>:

Etzazue deus egin! Zergatik geratuko naiz aparte? Hartutako Bataioari nola aterako diot horrelako probetxurik, ez da bidezkoa. Nire neba eta ahizpen halabeharra partekatu eta erdiba-

<sup>20</sup> Anissimov 2001: XIII.

<sup>21</sup> Arrizabalaga 1998: 57.

<sup>22</sup> Ikus 9. oharra.

natu ezin baldin badut, nolabait ere nire bizitza hondatua ger-  
tatuko da.

Historia pertsonal honen lehen eskuko lekukotasun idatzia  
bildu da *Obras Completas* honetan.

### 3. Idazlan guztien argitalpena: *Obras Completas*

Karmeldarrek, arrazoi guztiarekin, XX. mendeko beren le-  
kuko handitzat daukate Edith Stein: testigu bortitza, entzuteko  
moduko ahotsa. Joan den mendeko Europa eta Alemania “ilus-  
tratuaren” porrot itzelaren biktima. Anitz idatzi zuen Stein-ek  
gizakiaz, gizarteaz, botereaz, erlijioaz, Jainkoaz, eta guztia jaso  
nahi izan da edizio honetan.

Bost liburukitan sailkatu dira haren idazkiak:

- Idazki autobiografikoak eta gutunak (I): 1.766 or.
- Idazki filosofikoak (II/III): 949 + 1.229 or.
- Idazki antropologiko eta pedagogikoak (IV): 1.172 or.
- Idazki espiritualak (V): 963 or.

Orotara, 6.079 orrialde dira, eta ikus daitekeenez, Filosofiak  
aparteko pisua du, izan ere bere ofizioko lana zuen hori E.  
Stein-ek, eta alde biografikoak baliozko lekukotasunak eskain-  
tzen dizkigu, idazlan autobiografikoak jaso dituelako ez ezik  
gutun-bilduma handia bildu delako ere: 1916-1942. urteetan  
berak idatzitako 678 eskutitz, eta 1918-1945.etan berari bidali-  
tako 273.

Zein leku izan dezake honek guztiak gure kultura erlijioso-  
an? Zer eman diezaioke argitalpen honek Euskal Herriko ira-  
kurleari?

Azken berrogei urtetako lehortearen ondoren (1968-2008),  
tranzendentziarekiko galdera bizirik agertzen ari da euskal kul-  
tur munduan, auzi hori kasik erabat albora utzita egon ondo-  
ren. Ez dakar horrek, beste gabe, erlijiotasun instituzionalaren

kimaldirik, gaur bilatzaile den gizakiak Erakundeetatik harago ere begiratu beharra sumatzen baitu.

*Hemen* aldizkarian irakurri ahal izan diren lanek edo Joxe Arregi eta Edorta Jiménez-en arteko elkarrizketak, aleka bada ere, alor honetan une kultural berria datorrenaren susmoa pizten didate. Nahitaez garai bateko elizatarara itzultzeko asmorik gabe, sakoneko giza bilaketa baten zantzuak eta gogoak ikusten dira, ez noski modu orokorrean baina bai han-hemengo ahots deigarrietan: X. Lete, Joxan Artze, etab.

Testuinguru kezkatu honetan Edith Stein-en mezua errespetagarria, eta lagungarria, iruditzen zait, ez bere osotasunean geureganatzeko, baina bai haren bilaketa erlijiosoaren arrazoi eta jite ardatzak ezagutu, birpentsatu eta balioesteko.

*Obras Completas* honetako idazlan guztiek, ordea, ez dute irakurgarritasun bera izango. Hasteko, idazlan autobiografikoak gomendatuko nituzke, nornahiri ere eskuerago gertatuko zaizkiolakoan. Badute interesik; *Autobiografía. Vida de una familia judía*-k, adibidez, ongi erakusten dizkigu zenbait jakingarri: familia judu alemaniar baten historia, xehetasunez eta modu oso biografikoan emana; ekimen pertsonal bizkorreko emakume baten gorako lanbidea; Alemaniako zenbait Unibertsitatetako lagunarte akademikoak; arrakasta handiko filosofi talde baten barruko harremanak, pertsonalak bezala filosofikoak, etab. Azken alde hauetarako, gutuneriak aparteko balioa du, noski, nahiz eta irakurle arruntari era berean interesatuko ez zaion.

Idazlan filosofikoetan, balio agerikoak dira batzuk: Stein-en lehen hastapenak *Sobre el problema de la empatía*-n bilatu behar dira (O.C. II, 73-202), fenomenologiaren baitako gogoetak, berriaz, hainbat idazlan ditu: “¿Qué es fenomenología?”, “¿Qué es Filosofía?”, “Fenomenología de Husserl y la filosofía de Santo Tomás de Aquino”, “La significación de la fenomenología para la visión del mundo” (O.C. III, 133-157, 165-192, 197-221, 541-556).

Stein-en heldutasuneko obrak datoz gero: *Ser finito y ser eterno. Ensayo de una ascensión al sentido del ser*, alde bate-

tik, eta *Ciencia de la Cruz*, Joan Gurutzekoaren hildotik eramandako hausnarketa, bestetik (O.C. III, 604-1.200; V, 201-477). Irakurtzekoa da lehen liburu horretan, *Ser finito y ser infinito*-n alegia, Filosofiatik Teologiara jauzi egitean, zein sarre-  
ra ematen dion lanari (O.C. III, 604):

Hasiberri batek hasiberrientzat idatzitako liburua da hau. Idazlea [=Edith Stein] behartuta zegoen bideari berriro ekitera, hain zuzen gainerakoak maisu-titulu eta guzti ibili daitezkeen adin batean. Edmund Husserl-en eskolan hezia, idatzita zeuzkan fenomenologiaren metodoa jarraikiz burututako lan batzuk. Hauek Husserl-en *Urtekarria*-n eman ziren argitara, eta, horri esker, lan filosofikoak eta jendaurreko zereginak utzita zeuzkan garai batean eman zen ezagutzera. Kristoren eta beraren Elizaren bidea aurkitu zuen, eta hortik nire ondorio praktikoak ateratzen nenbilen.

Horrela, Stein-en bizialdi intelektuala (eta bizitza bera) bitan banatuta ageri zaigu, eta bigarren aldian, pentsamendu kristaua (hausnarketa berriak eta Sto. Tomas bitarteko) ez ezik mistika kristauan bilatuko du gogoeta berri eta praktikoa baterako ildo. Joan Gurutzekoarekin batera (1942), eta lehena-gotik (1921...), Santa Teresa Avila-koaren esperientzia mistikora hurbilduko da<sup>23</sup>, eta hori dena gogoan hartuta eraiki nahiko du antropologia kristau berri bat, “Cursos antropológicos” sailean ikus daitekeenez (O.C. IV, 451-986).

Argitaraldi honek langile finak izan ditu, lehenik eskuizkribu eta iturri argitaratuak biltzeko, gero itzulpenak egiteko, sarre-  
ra luze eta laburretan idazlan bakoitzaren historia emateko, ehunka oin-oharretan argibide zehatzak aurkezteko, erreferentzia kultural eta biografikoak xehetasunez eskaintzeko. Ez da falta, gainera, Stein-en nondik norakoak argituko dituen azal-

---

<sup>23</sup> Hasteko, badakigu 1922ko bataio-erabakia aurreko urtean irakurritako Sta. Teresaren *Libro de la Vida*-ren karietara etorri zela; gero, behin eta berriz itzuli zen Sta. Teresa-ren idazkietara (O.C. V, 53-106, 495-541).

pen luzerik, bai biografia pertsonalean eta baita haren pentsamendua azaltzean.

Julen Urkizari zor zaizkio iturrien bilaketa-lana, berorien albiste zehatzak bildu eta aurkeztea, eta obra erraldoi honetan ordena argi bat jartzea. Jatorrizko iturri alemaniarretatik egin du lan, beharrezko itzulpenak eginez edo itzultitakoak berrikusiz. Irakurri ez ezik testu hauek arakatu nahi dituenak izen-aurkibide erosoak aurkituko ditu argitalpeneko liburuki bakoitzean, eta Stein-en idazlan hauetan ageri den gizartea ezagutzeko erabil-errazak gertatzen dira.

Begiratzekoa izan daiteke Edith Stein-en bizitza, pentsaketa-biografia ere badelako, eta sinesmen-bilaketa moderno baten bide-egutegi suertatzen delako. Ez da biziera hori alferrikako *adibidea*, adibidea diot, bere osoan *eredu* errepikagarria izateko baldintza zailekoa baita, nahitaez.

Donostia, 2008-04-30

*Joseba Intxausti*